



## KONTSUMO BULEGOA

Iparragirre, 11  
20700 URRETXU (Gipuzkoa)  
Tfona.: 943 72 42 79 - Faxe: 943 726368  
E-mail: [omic-urolagaraia@kontsumo.net](mailto:omic-urolagaraia@kontsumo.net)

Argi eta gas hornitzaileen izenean saltzaileak omen dabilta etxebizitzetan bisitak egiten baina jokabide engainagarri eta oldarkorra erakusten dute. Horren gainean hainbat salaketa jaso dira Urola Garaia mankomunitateko Kontsumitzaileen bulegoan eta, beraz, erne egotea eta arduraz jokatzea komeni da atez ate saltzera datozen saltzaile horien jokabideen aurrean.

Hona hemen gomendio batzuk:

- Saltzailea behar bezala identifika dadila eskatu.  
Pentsatu gauza bat: nola liteke zuen hornitzailearen izenean norbait etorri eta zure datuak ez ezagutzea?
- Ez eman inori zure datu pertsonalak, zure kontratuaren ezaugarriak edo bestelako informazioa duen faktura edo dokumenturik.
- Ez utzi zure Nortasun Agiriari edo fakturei argazkiak ateratzen.
- Hornitzailea aldatu nahi baduzu, ondo informatu aurretik. Aztertu ondo onurak, fakturazioaren prezioa, tarifa.... Hau da, ondo egiaztatu nahi duzun zerbitzua kontratatzen duzula.
- Jokabide okerra edo desegokia antzematen baduzu, jarri salaketa Kontsumobiden edo Kontsumitzaileen bulegoan (Iparragirre kalea 1.1, behea. Urretxu). Tel: 943 724279.
- Etxean saltzailearekin egon ondoren gas edo argi hornitzaile batekin kontratu berri bat sinatzen baduzu, eskatu kontratuaren kopia bat, baldintzak ondo ezagutzeko.
- Gogoan izan 14 egun dituzula kontratua baliogabetzeko. Hau da, aukera duzu epe horretan atzera egiteko eta ez duzu inolako zigorrik jasoko horregatik.
- Ondo jakin, uneoro, zer sinatzen duzun. Hornitzaile berriak kontratua sinatu eta handik 14 egunera gasa edo argia hornitzea nahi baduzu, espresuki adierazi beharko diozu hori.